

GAZTE HITZAK

2026

Gazte Hitzak Gasteizko Udaleko Kultura eta Gazteria zerbitzuek bultzatutako literatura lehiaketa da, gazteen idazketa sortzailea sustatzea helburu duena.

Adinaren arabera, bi genero landuko dira: **nanoipuina** eta **ipuina**.

SORTZEN

LEHIAKETAREN OINARRIAK

> **GAIA:** Aurkeztutako nanoipuinek zein ipuinek “azala” hitza izan beharko dute.

> PARTE-HARTZAILEAK

Gasteizen bizi, ikasi dauden edota lan egiten duten **12-30 urte** bitarteko gazteak.

Saritutako partehartzaileei baldintza hau egiaztatze-ko dagozkion agiriak eskatu ahalko zaizkie.

Parte hartzaileak ezingo dira bi edizioz jarraian sarituak izan.

> AURKEZTU BEHARREKO LANAK

Adinaren arabera parte-hartzaileek nanoipuinak edo ipuinak aurkeztu beharko dituzte. Bi modalitate egongo dira: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa.

Idatziak banaka aurkeztu beharko dira, eta pertsona bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu: modalitate (hizkuntza) bakoitzean bana.

Lan guztiak originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dira, eta istorio bat kontatu edo iradoki beharko dute.

1. NANOIPUINA

12-18 urte bitarteko gazteek (2026an zehar beteak) **nanoipuinak** idatziko dituzte. Bi kategoriatan banatuko dira: **12-15 urtekoa** eta **16-18 urte tartekoak**.

Nanoipuinek, **gehienez, 300 karaktere** izango dituzte, izenburua (aukerakoa) eta hitzen arteko hutsu-neak barne. Karaktere kopurua gaindituz gero, automatikoki lehiaketatik kanpo geldituko dira.

2. IPUINA

18-30 urte (2026an zehar beteak) bitarteko gazteek **ipuinak** idatzi beharko dituzte. Bi kategoriatan banatuko dira: **18-24 urtekoak** eta **25-30 urte tartekoak**.

Ipuinek, **gehienez 1500 eta gutxienez 1000 hitz** izan beharko dituzte. Izenburua izan beharko dute derri-gorrez. **Word edo LibreOffice formatuan** aurkeztu beharko dira.

Lehiaketaren urtean 18 urte betetzen dituzten gazteek aukera izango dute nanoipuina edota ipuina idazteko.

> LANAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA:

Epea: 2026ko **urtarrilaren 21etik martxoaren 1era**, biak barne.

Nola: Gasteizko Udalaren webgunean dagoen inprimakiaren bitartez: www.vitoria-gasteiz.org/gaztehitzak.

> EPAIMAHAIA

Gasteizko Udaleko Kultura eta Gazteria Zerbitzuek izendatuko dute eta besteak beste, Euskadiko erreferentziazko idazleek osatuko dute.

Epaimahaiak lanen originaltasuna, kalitatea, gaiarekiko hurbilpena, eta testuak (ipuinen kasuan) sormen prozesu batean borobilduak izateko aukera baloratuko ditu.

Haren erabakiak apelaezinak izango dira eta sariren bat eman gabe utzi ahal izango du.

Epaimahaiaren ebazpena **martxoaren 24an** argitaratuko da Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/gaztehitzak), baita erakunde antolatzaileen eta laguntzaileen ohiko komunikazio kanaletan ere.

> SARIAK:

Guztira 8 idatzi sarituko dira, **adin tarte eta hizkuntza bakoitzeko bat**.

> Nanoipuinak

- **12-15 urteko kategoria:** 100 € eta 75 €-ko oparixartela Gasteizko liburu-denda batean gastatzeko.

- **16-18 urteko kategoria:** 100 € eta 75 €-ko oparixartela Gasteizko liburu-denda batean gastatzeko.

Gainera, idazketa lantegi batean parte hartzeko aukera izango dute, trebatzen jarraitzeko.

> Ipuinak

- **18-24 urteko kategoria:** 250 € eta 75 €-ko oparixartela Gasteizko liburu-denda batean gastatzeko.

- **25-30 urteko kategoria (Laboral Kutxa Saria):** 250 € eta 75 €-ko oparixartela Gasteizko liburu-denda batean gastatzeko.

Gainera, saritutako ipuinen egileek idatzitako lanak ondu edota eraldatzeko aukera izango dute baita ere. Horretarako, **Euskadiko idazle erreferenteen laguntza eta sormen-aholkularitza** izango dute. Prozesu hau 2026eko apiriletik maiatzaren erdialdera bitartean egingo da irabazleek eta idazleek adostutako data eta moduetan. Ipuin irabazleen egile bakoitzak **10 ordu** izango ditu bere idazle-mentorearekin.

Saritutako **testuak jasoko dituen liburuxka ere argitaratuko da**. Honek kontakizunekin zerikusia duten ilustrazioak ere jasoko ditu, ID-Arteko Euskadiko Arte eta Goi-mailako Diseinu Eskola Publikoko gazteek eginak. Liburuxka Gasteizko Liburutegien Sarean ikusgai egongo da, besteak beste. Liburuxken PDF bertsioa Gasteizko Udalaren webgunetik ere zabalduko da (www.vitoria-gasteiz.org/gaztehitzak), baita erakunde antolatzaileen eta laguntzaileen ohiko komunikazio kanaletan ere.

Saritutako lanak ekitaldi publiko batean aurkeztuko dira 2026ko maiatzaren 30ean. Bertan, sariak banatuko dira eta irabazleek testuak ahoz kontatuko dituzte.

Saritutako eta epaimahaiak aukeratutako testuekin eta horien ilustrazioekin **erakusketa ibiltaria** egingo da hiriko hainbat espazio kulturaletan.

> OHARRAK

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek eta epaimahaiaren erabakiak onartzea dakar.

Lehiaketara aurkeztutako **lanen jabetza** uneoro egileena izango da. Antolatzaileek argitaratzeko edota erreproduzitzeko eskubidea izango dute, baimenik eskatu gabe, beti ere egileak izendatuz.

Lehiaketa edo oinarri hauei buruzko edozein **zalan-tza argitzeko** honako posta elektronikora jo daiteke, gaian "Gazte Hitzak 2026" adieraziz: gaztehitzak@vitoria-gasteiz.org.

Lehiaketaren antolakuntzak lanen baliozkotasuna erabakiko du. Obraren batek baldintza teknikoak betetzen ez baditu edo, beste arrazoiren batengatik, iraingarria delako esaterako, lehiaketaren filosofiarekin bat ez datorrela uste bada, ez argitaratzea erabaki ahal izango du.

Ezingo da inongo marka edo produkturen publizitate-rik egin. Kontrara, aurkeztutako obra baztertu daiteke.

Adimen Artifizialaren erabileraren zantzurik daukaten lanak automatikoki lehiaketatik kanpo geldituko dira.

Etorkizunean bestelako esku-hartzerik egingo balitz lehiaketa honetarako sortutako lanekin, Vitoria-Gasteizko Udalarekin izandako lankidetzara islatu beharko litzateke. Horretarako, Gazte Hitzak-en logoa gehitu beharko da esku-hartzea hedatzeko sortuko diren komunikazio- eta publizitate-euskarri guztietan.

Lehiaketaren antolakuntzak ez du hartuko inolako erantzukizunik bere gain aurkeztutako lanek beste artista batzuen egile-eskubideak urratzen badituzte. Erreklamaziorik egonez gero, parte-hartzaileak izango dira erantzule bakarrak.

Antolakuntzak eskumena izango du oinarri hauetan jasota ez dagoen edozein gorabehera ebazteko.

